

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Cristina Ibarrola Osasunbideako zuzendari kudeatzaile izendatu dute eta Isabel Ansa, Osasuneko zuzendari nagusi

Gobernuak bere gaurko bilkuran hartu du erabakia

Viernes, 19 de septiembre de 2014

Nafarroako Gobernuak bere gaurko bilkuran Cristina Ibarrola Guillen Osasunbideako zuzendari kudeatzaile eta Isabel Ansa Erice Osasuneko zuzendari nagusi izendatzea erabaki du.

Cristina Ibarrola Iruñean jaio zen 1969an. Ezkonduta dago eta bi seme-alaba ditu. Nafarroako Unibertsitatean Medikuntza ikasi zuen (1987-1993) eta Familiako eta Komunitateko Medikuntzan espezializatua da. Nafarroako Ospitalean egin zuen egoitza (1994-1996). Ondoren, IESE eskolan Osasun Erakundeetako Goi Zuzendaritzako Programa egin zuen (2009).

Nafarroako Ospitaleko larrialdietan mediku-ondoko gisa lan egin zuen (1997-1998) eta, gero, familiako mediku aritu zen Iruñeko II. Zabalguneko osasun zentroan (1999-2000), Valtierra Oinarrizko Osasun Barrutian (2001-2002) eta Iruñeko Ermitagaña osasun zentroan (2002-2007).

2007ko irailetik 2008ko azarora Nafarroako Iparraldeko Lehen Mailako Arretako Zuzendariordea izan zen; orduan, Osasunbideko Lehen Mailako Arretako zuzendari izendatu zuten.

2011ko abuztuan Nafarroako Gobernuko Osasuneko zuzendari nagusi izendatu zuten. Bertan aritu da 2014ko irailean Osasunbideako zuzendari kudeatzaile izendatu duten arte.

Bestalde, Isabel Ansa Erice Osasuneko zuzendari nagusi berri izendatu dute, Cristina Ibarrola Guillén-en ordean. 1955. urtean jaioa, Osasuneko Zuzendaritza Nagusiko Osasun-Antolamendu eta -Ikuskaritza



Cristina Ibarrola Guillén

Zerbitzuko zuzendari izan da orain arte.